



U I K

Uda Ikastaroak  
CURSOS DE VERANO  
UPV / EHU  
SUMMER COURSES

**EZAGUTZAREN ALDE**  
**DEL LADO DEL CONOCIMIENTO**  
**ON THE SIDE OF KNOWLEDGE**

**ZATOZ GURE UDA IKASTAROETARA**

Ezagutzaren alde ikuspegi berriak esploratzeko aukera paregabea dugu UPV/EHUko Uda Ikastaroetan.

Adimen artifiziala, jasagarritasuna eta partehartzea izango dira edizio berri honetako erronka nagusiak

Askotariko herritarrek egingo dugu topo bertan, ezagutza partekatu, hausnartu eta etorkizun hurbila zabaldu jarriko dugu.

Sartu uik.eus atarian, behatu gure Uda Ikastaro eskaintza eta eman ezazu ezagutzaren aldeko pausoa.

**MATRIKULA ZABALIK**  
**MATRICULA ABIERTA**  
**OPEN ENROLMENT**

Fundación BBVA

## Osasunari buruzko gai ugari jorratuko dituzte EHUko Uda Ikastaroetan

Apirilaren 23an aurkeztu zen [Uda Ikastaroen](#) 43. edizioa Bilbon, [BBVA Fundazioaren](#) egoitzan. Eva Ferreira [EHU](#)ko errektoreak, Laura Poderoso BBVA Fundazioaren zuzendariordeak eta Itziar Alkorta Uda Ikastaroen zuzendari akademikoak aurtengo edizioari buruzko zertzeladak azaldu zituzten. Ekainaren erdialdean hasi eta irailaren amaierara arte ia 200 jarduera programatu dira.

Bada, osasunari dagokionez, askotariko gaiak izango dira solasgai: osasun mentala ikuspegi soziokultural eta feministatik landuko da; klima-aldaketak laneko osasunean duen eragina sakon aztertuko da, laneko arriskuaren prebentzioaren esparruan sor daitezkeen arrisku berriak behar bezala ebaluatu eta kudeatu ahal izateko; osasunaren alorreko finantza-erabakiak hartzen laguntzeko ebaluazio ekonomikoa hizpide izango da; haur elebidunek beraien garapenean dituzten hizkuntza-nahasmenduak xehetuko dira; eta, beste askoren artean, adineko pertsonen hauskortasunaren eta mendekotasunaren prebentziora bideratutako Adinberriren [Berrikuntzaren Agenda Estrategikoa](#) eragileekin eta herritarrekin partekatuko da. Ziklo paralelo gisa, psikologia alorreko ikastaro andana izango da.

Aurtengo EHUko Uda Ikastaroen berri [hemen](#).



## "Osatuberrri" aldizkariaren zenbaki berria kalean da jada

[Osakidetzak](#) euskara hutsean argitaratzen duen "Osatuberrri" aldizkariaren martxo-apirileko zenbakia eskuragarri dago jada. Besteak beste, Deustuko Unibertsitateak bultzatutako [Inspira Steam](#) egitasmoa, adimen artifiziala nola baliatu ikasteko urtarileko jardunaldiak eta Osakidetzako I. Berdintasunaren aldeko Foro Partehartzailea izan dituzte hizpide; baita emergentzia-deien atzean dauden profesionalen nondik norakoak eta [Gehiago Gara](#) egitasmoa ere.

"Osatuberrri" aldizkariaren 70. zenbakia (pdf) eskuratu [hemen](#).



## EHUn ere Hezkuntza Euskaraz!

Leioako EHUko Erizaintza eta Medikuntzako Euskara Taldeak bideo hau kaleratu berri du! Euskal hiztunok [EHU](#)n ezin dugu euskaraz ikasi. Nahiz eta irakasgaietan euskaraz matrikulatu, euskaraz ez dakitenen mesedetan, gazteleraz ematen dira irakasgai asko! EHUn ere Hezkuntza Euskaraz!

[Bideoa ikusi](#)